NOR-NORI-NORK ERABILTZEKO LIZENTZIA

HUTSUNEAK BETE:

1. Emakume ederrak itsasontziko kasinoan jokatzen zuen bitartean, 007k kamarotean ..... (la esperó), erretzen eta martinia edaten.

2. Emakumea kamarotean sartu zen, eta 007k ..... (le agarró del brazo).

3. Aspaldi ..... (se habían ayudado mutuamente) agiri sekretu garrantzitsu batzuk berreskuratzeko; aspaldi ..... (se habían amado mutuamente)... Orain, ordea, emakumeak No Doktorearentzat egiten zuen lan.

4. 007k ..... (tuvo que aferrarse a sus ideas) noizbait maite zuen espioia ez hiltzeko. Gainera, emakumeak No Doktorearen egoitzara ..... (tenía que acompañarlo).

5. Tamalez, No Doktorearen morroi batek ..... (les había seguido); eta, emakumeak hitz egin baino lehen, atetik labana bota eta bizkarrean sartu zion.

6. 007k, mendekua aldarrikatzen zuen bitartean, ... (sujetó a la mujer de los brazos) lurrera eror ez zedin; baina alferrik zen, haren begietan bizitzaren arrasto oro desagertua baitzen. 007 konturatu zen orduan ..... (que nunca había dejado de amarla).

7. Bien bitartean, No Doktorea itsapeko egoitzako areto nagusian sartu zenean, morroi guztiek ..... (dejaron de hacer el vago) eta ..... (se pusieron a trabajar).

8. 007k ezustean ..... (les atacó), baina No Doktoreak ..... (se dio a la fuga). 007k ..... (le siguió).

9. Bilera aretoko mahai handian eserita aurkitu zuen kriminala, lasai antzean eta katua laztantzen. No Doktoreak ..... (dejó acercarse a 007), eta nahiko hurbil zegoela ..... (accionó la palanca) 007 zulotik eror zedin.

10. Hamar krokodilo baino gehiago ..... (se abalanzaron sobre 007). Krokodiloek ez zuten NOR-NORI-NORK erabiltzeko lizentziarik; bai, ordea, NOR-NORK erabiltzekoa, eta horregatik oso-osorik ..... (se comieron a 007).

ERANTZUNAK:

1. itxaron zion
2. besotik heldu zion
3. elkarri lagundu zioten, elkar maitatu zuten
4. bere sinismenei eutsi behar izan zien, lagundu behar zion
5. jarraitu zien
6. emakumeari besoetatik eutsi zion, ez ziola inoiz maitatzeari utzi
7. alferkeriari utzi zioten, lanari ekin zioten
8. eraso zien, ihesari eman/ekin zion, jarraitu zion
9. 007ri hurbiltzen utzi zion, palankari eragin zion
10. oldartu zitzaizkion, 007 jan zuten